

AIPAMENAK ETA ERREFERENTZIAK. AIPAMENAK ETA ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK NOLA EGIN.

Lan akademiko edo zientifiko bat egiteko, beharrezkoa da landu beharreko gaiarekin zerikusia duten informazio-iturriak kontsultatzea. Era berean, beharrezkoa da erabilitako bibliografia hori lanean txertatzea, aipamenen eta erreferentzien bitartez.

Kontsultatzen dituzun iturri guztiak arau edo estilo jakin bat erabiliz aipatu behar dituzu (APA, Vancouver, etab.) Ikastegiaren, irakaslearen edota jakintza-arloaren arabera izango da estiloa.

[Bideotutoriala: "Cómo citar y elaborar referencias bibliográficas"](#)

OINARRIZKO KONTZEPTUAK

Erreferentzia: dokumentua identifikatzen duen datu-multzoa da, eta, beraz, dokumentuaren bilaketa errazten duen datu-sorta.

Aipamena: erreferentziaren forma laburtua da, eta testuan txertatzen da iturria identifikatzeko asmoz.

Plagioa saihesteko balio du; eta, aldi berean, lanaren kalitatearen eta zehaztasunaren adierazle da.

Aipamen guztiak bibliografian agertuko dira.

Bibliografia:

Aipatu diren erreferentzien zerrenda da, eta dokumentuaren bukaeran egongo da kokatua.

BIBLIOGRAFIA GESTOREAK

Bibliografia gestoreak lan edo argitalpen zientifiko baten erabiltzeko bibliografia bildu, antolatu eta partekatzeko balio duten tresnak dira.

UPV/EHUk [Refworks](#) kudeatzailea gomendatzen du, eta [formakuntza ikastaroak](#) eskaintzen ditu, hain zuzen, ikasle, irakasle eta ikerlariak gestore horren erabiliera ezagutu dezaten.

AIPAMEN ESTILOAK

Erabili beharreko estiloa ezagutza-arloaren edo irakasgaiaren araberakoa izango da. Irakaslea arduratuko da horren berri emateaz hasierako momentutik.

Arau multzo bat da; arau horiek dokumentu mota bakoitzaren aipamena egiterakoan eman beharreko datuak zehaztuko dituzte, eta hauek zein ordenatan emango diren ere bai. Elementuak funtsean berdinak dira: egileak, izenburua, data, iturria, identifikazio zehatzerako datuak ...

Gehien erabiltzen direnak:

[APA](#): American Psychological Association erakundeak sortua. Psikologian erabiltzeaz gain, giza-zientzien inguruko ikasketetan ere erabiltzen dira.

[Uniform-Vancouver](#): osasun-zientzien arlorako.

[MLA](#): Modern Language Association erakundeak sortua, letren eta hizkuntzalaritzaren esparruan erabiltzen da.

[Chicago](#): batez ere, giza- eta gizarte-zientzien arloan, historian, artean eta literaturan.

[IEEE](#): Institute of Electrician and Electronican Engineers erakundearen gomendioz, ingeniariarako erabiltzen den bibliografia-estiloa.